

Kartel (marrazki eta pintura) eta bideo lehiaketa, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak antolatua, Hezkuntza Departamentuarekin, Medikuntza, Odontologia, Erizaintza eta Lanbide Elkargoekin eta Semfyc-Familia Medikuntza eta Medikuntza Komunitariorako Elkartearekin batera, **Tabakorik gabeko Mundu Eguna** (Maiatzaren 31) dela-eta

HELBURUA: Gazteak sentsibilizatzea eta tabakoaren kontsumoa prebenitzea haien artean.

EPAIMAHAIA

Honako hauek osatuko dute epaimahaia: Ondotologia Elkargoko kide bat ; Medikuen Elkargoko kide bat; SEMFYCeko kide bat (PAPPS); Erizaintza Elkargoko kide bat; Hezkuntza Departamentuko kide bat; eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko kide bat.

EPEA: lanak aurkezteko epea 2015ko maiatzaren 15an bukatuko da (egun hori barne).

1. KARTEL LEHIAKETA (MARRAZKI ETA PINTURA)

Bi kategoria daude:

- Lehen Hezkuntza
- DBH, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Hezkuntza Berezia

GAIA

Lehiakide bakoitzak kartel bat egingen du (marrazki edo pintura bat), **Tabakorik gabeko Egunari** buruzkoa.

AURKEZPENA

Kartelak A3 tamainakoak izanen dira eta JPG formatukoak. Ezin dira izan 3 Mb-koak baino handiagoak. Posta elektronikoz bidaliko dira, hona: ispdirec@navarra.es, gaia aipatuz "Tabakorik gabeko Eguneko lehiaketa".

Partaideak bere datu hauek eman beharko ditu: izena eta bi abizen, adina, lehiaketa eta ikastetxea.

SARIAK

Kategoria bakoitzeko sari hauek emanen dira:

- **Taldeko saria:** Lehen Hezkuntzan, Txangoa Sendavivara, eta Bigarren Hezkuntzan, Rocópolisera, irabazlearen gelakide guztiendako.
- **Banakako saria:** 60 euroko txartela kirol arroparako.

2. BIDEO LEHIAKETA

Bideo lehiaketa honako ideia hau oinarri hartuta: "**Ez itsutu Kearekin**" gailu mugikor edo antzekoren batekin (sakelako telefonoa, kamera...) egindako bideorik onena sarituko da.

Lehiaketa honetan parte hartzeak honako hauek ekarriko ditu:

- Osorik onartzea oinarri hauetan jasotako baldintza guztiak.
- Bideoaren egileak eta protagonistek baimena ematea bideoa erakunde dei-egileen web-orrietan argitaratzeko eta, hala behar bada, baita komunikabideetan ere.
- Bideo irabazlea entitate dei-egileen jabetzapean geldituko dira.

OINARRIAK

- Parte-hartzaileek DBHko 4. mailako ikasleak izan beharko dute, edo Batxilergoko edo

Lanbide Heziketako 1. mailakoak.

- Banaka edo taldeka parte har daiteke.
- Bideoak 2 minutu iraunen du, gehienez ere.
- Bideoaren gaia **“Ez itsutu kearekin”** ideiarri lotuta egonen da.
- Bideoaren errotuluetan honako hauek adieraziko dira: titulua, egileen izenak, ikastetxea, maila, eta arduradunaren telefonoa, harekin harremanetan jartzeko, bideoak saria irabaziz gero.
- Bideoa egiteko, gailu mugikor edo antzekoren batekin (sakelako telefonoa, kamera...) egindako grabazioa erabiliko da.
- Bideoko irudiak jatorrizkoak izanen dira, eta parte-hartzaileek hartutakoak.
- Ez da onartuko lehenago beste inongo lehiaketatara aurkeztutako bideorik, ezta komunikabideetan argitaraturiko bideorik ere.
- Bideoa CD edo DVD batean aurkeztuko da, behar bezala errotulatua, edo posta elektronikoz bidaliko da, behar bezala identifikatuta egon beharko duelarik.

AURKEZTEKO MODUA

Izena emateko, ikastetxearen bidez egin beharko da ezinbestean.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Epaimahaiak bideoetako bat hautatuko du, honako irizpide hauei begira: originaltasuna, hunkitzeko ahalmena eta lehiaketaren ideiarekin duen lotura.

Baloratuko da bideoak gazteak adoretzea erretzen ez hasteko eta ohartaraztea tabakoaren kontsumoak dakartzan arriskuez eta sortzen duen mendekotasunaz.

LANAK NON-NOLA AURKEZTU

Bideoak posta arruntaz bidaliko dira Odontologia Kolegiora (Nafarroa Behereko Etorbidea, 47 zk.), bertara zuzenean eramanen dira, edo posta elektronikoz bidaliko (cooe31@infomed.es), betiere behar bezala adierazita arduradunaren izena eta telefonoa, parte-hartzaileen izenak, bideoaren titulua, ikastetxea eta maila.

SARIA

Bideo irabazlearen egileek, eta haien gelakide guztiek, 2 orduko abentura eta eskalada saio baterako saria jasoko dute, baita 60 euroko txartela ere kirol arroparako.

Epaimahaiak **2015ko maiatzaren 29an**, goizeko **11etan**, irakurriko du epaia eta banatuko ditu sariak, **Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Aretoan** (Landaben industrialdea E eta F kaleak). Ekitaldira Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilaria etorriko da. Irabazleen gelakide guztiak gonbidatuko dira, baita irakasle arduraduna ere. Interesdunei behar bezain garaiz emanen zaie sariaren berri.

Argibide gehiago: Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua. Tel.: 848423444 eta ispdirec@navarra.es